

Fitxa

Eskabidearen Datuak

Erabilitako bidea: 012, Zuzenenan

Erabilitako hizkuntza: Gaztelania

Urraketa gertatu den hizkuntza: Euskara

Zioa: Naturgasetik iristen zaizkion gutunetan bere helbidea gaztelaniaz dator.

Inzidentzia mota: Kexa

Urraketa mota: Harremana

Urraketa-harreman mota: Idatzizkoa

Eremua: Publikoa - Erakunde, ente eta sozietate publikoak

Erakundea: Naturgas Energia

Ebazpenaren Datuak

Izapidetza: Izapidetuta

Egoera: Itxita

Eraitza: Ez dago urraketarik

Erantzuna: Kontratu papera bete zuenean bezala jasotzen du bezeroak jakinarazpena, euskaraz edo gaztelaniaz. Hortaz, bere helbideari zegozkion datuak gaztelaniaz idatziko zituen bezeroak, zalantzarik gabe. Jakina, datuak aldatu eta euskaraz idatzi nahi baditu inongo arazorik gabe egin daiteke, gure telefono urdinera deituz.

Fitxa

Eskabidearen Datuak

Erabilitako bidea: Zuzeneko arreta

Erabilitako hizkuntza: Euskara

Urraketa gertatu den hizkuntza: Euskara

Zioa: Eusko Jaurlaritzaren aurka kexa aurkeztu du. Euskara ofiziala da Autonomia Erkidegoan eta euskara ikastea doan izan beharko lukeela uste du. Diruz gaizki dabilenak ez du euskara ikasten garestia delako.

Inzidentzia mota: Kexa

Urraketa mota: Harremana

Urraketa-harreman mota: Ahozkoa eta idatzizkoa

Eremua: Publikoa - Eusko Jaurlaritza

Erakundea: Eusko Jaurlaritza

Ebazpenaren Datuak

Izapidetza: Izapidetuta

Egoera: Itxita

Eraitza: Ez dago urraketarik

Erantzuna: HABEk bere helburuak betetzearren eta euskara ikasteak duen kostuari dagokionez bi laguntza mota ditu: a) Euskaltegien jarduera finantzatzen laguntzeko diru partidak ditu bere aurrekontuan eta, euskaltegien jardueraren kalitatea sustatzeko eta ikasleentzako kostuak mugatzeko, 2006ko aurrekontuetan gehikuntza nabaria izan dute partida horiek, 30 milioi euro inguru izan ditu HABEk ekitaldian. Hortaz, ikasleak ordaindu ohi duen matrikulazio kostua zerbitzuaren kostua baino txikiagoa da; b) Ikasleentzako diru laguntza zuzenak ditu HABEk. Urtero deitu ohi dituen egiaztatze probetan mailaren bat gainditzen duen ikasleari 600 euroko (1.maila gainditzean) edo 400 euro (2., 3. edo 4.mailak gainditzean) laguntza zuzena ematen dio HABEk. Hortaz gain, udal askok ere badituzte ikasleentzako laguntza zuzenak, emaitzaren, asistentziaren edo egoera sozialaren arabera emanak. Bestalde, HABE kostu azterketa egiten ari da Legebiltzarraren eskariz matrikula kostua ez dadin inorentzako eragozpena izan euskara ikasteko.

Fitxa

Eskabidearen Datuak

Erabilitako bidea: 012, Zuzenenan

Erabilitako hizkuntza: Gaztelania

Urraketa gertatu den hizkuntza: Euskara

Zioa: Euskara ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu beharko lituzke euskara ikastea doakoa izan dadin. Izan ere, euskara ikasteko ordaindu egin behar da, eta garestia dela azaldu du herritarrek. Hortaz gain, lan ordutegiak planteatzen dituen zailtasunak ere kontutan izan behar dira. Herritarrek ondo deritzo, azken egunetan komunikabideetan agertzen ari den UKAN birusaren kanpainari, baina kexu da praktikan ez delako inolako erraztasunik ematen euskara ikasteko.

Inzidentzia mota: Kexa

Urraketa mota: Harremana

Urraketa-harreman mota: Ahozkoa eta idatzizkoa

Eremua: Publikoa - Erakunde autonomiadunak

Erakundea: HABE

Ebazpenaren Datuak

Izapidetza: Izapidetuta

Egoera: Itxita

Emaizta: Ez dago urraketarik

Erantzuna: HABEk bere helburuak betetzearren eta euskara ikasteak duen kostuari dagokionez bi laguntza mota ditu: a) Euskaltegien jarduera finantzatzen laguntzeko diru partidak ditu bere aurrekontuan eta, euskaltegien jardueraren kalitatea sustatzeko eta ikasleentzako kostuak mugatzeko, 2006ko aurrekontuetan gehikuntza nabaria izan dute partida horiek, 30 milioi euro inguru izan ditu HABEK ekitaldian. Hortaz, ikasleak ordaindu ohi duen matrikulazio kostua zerbitzuaren kostua baino txikiagoa da; b) Ikasleentzako diru laguntza zuzenak ditu HABEK. Urtero deitu ohi dituen egiaztatze probetan mailaren bat gainditzen duen ikasleari 600 euroko (1.maila gainditzean) edo 400 euro (2., 3. edo 4.mailak gainditzean) laguntza zuzena ematen dio HABEK. Hortaz gain, udal askok ere badituzte ikasleentzako laguntza zuzenak, emaitzaren, asistentziaren edo egoera sozialaren arabera emanak. Bestalde, HABE kostu azterketa egiten ari da Legebiltzarraren eskariz matrikula kostua ez dadin inorentzako eragozpena izan euskara ikasteko.